

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

EKIALDEKO KANTAURIAR ARROEN BULEGOA

Aramaioko (Araba), Untxilla auzoan kokatuta dagoen Prado Serain Iturria iturburutik ur publikoa hartzeko espedientea. Ur horrek etxerako, abeltzaintzarako eta ureztatzeko erabilera izango du

Espediente-zenbakia: A-G-2018-0011

Eskatzailea: Jose Martin Lizarralde Garcia-Echave.

IRAGARKIA

Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduko 116. artikuluan aurreikusitakoa betez, argitaratu ematen da, guztiek jakin dezaten, Uraren Euskal Agentziako Zuzendari Nagusiaren 2020ko abuztuaren 25eko Ebazpenaren bitartez eta horretarako abiarazitako espedientearen ondorio gisa, Aramaio udalerrian (Araba/Álava) Untzillan Prado Serain Iturria iturburutik urtean 368 m³ ur ateratzeko dagokion emakida esleitu zaiola José Martín Lizarralde García-Echave jaunari. Ur horrek etxerako, abeltzaintzarako eta urestatzeko erabilera izango du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezten, HILABETE BATEko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkeztu ditzaten lurralde-bulego honetan (Intxaurrondo kalea 70 – 1º- 20015 Donostia). Espedientea han egongo da ikusgai.

Donostia, 2020ko azaroaren 13a

Ekialdeko Kantauriar Arroen bulegoburua
FÉLIX CANTERO PALACIOS